II. DOKUMENTUA: FITXA TEKNIKOAK

2026ko iraila

HERRI-BIDEEN ZERRENDA.

USURBIL

01. ARPITA BIDEA
    - 01.1 – BENTAZIKIN
    - 01.2 – ELOR
    - 01.3 – ZALDIERREKA
    - 01.4 – ESPERANTZA
    - 01.5 – ZELAIAUNDI
    - 01.6 – EGITXIKI
02. IBARROLA BIDEA
    - 02.1 – IBARROLATXIKI
    - 02.2 – LARBAINGO BIDE ZAHARRA
    - 02.3 – IARTZA
    - 02.4 – TROIA
    - 02.5 – TXAPARRENBERRIKO ALDAPA
    - 02.6 - USASKUELARRE
03. EGIOLETA BIDEA
    - 03.1 – EGIOLETATXIKI
    - 03.2 – URTETA
    - 03.4 – EGILUZETXIKI-ENTZARRAIN
    - 03.5 – ALSUA
04. ARRATZAIN BIDEA
    - 04.2 – TXANTXONENEA
05. ETZABAL BIDEA
    - 05.1 – ENTZARRAIN
    - 05.2 – ERREKATXOTA
    - 05.3 – GAZTELU
06. ZUMITZAGA BIDEA
07. IBINDOS BIDEA
    - 07.1 INTXUSPE
    - 07.2 MALLUKO PORTUA
08. AGINAGA – ORIOKO BENTA BIDEA
    - 08.1 – ORIORAKO BIDE ZAHARRA

08.2 – AITZASATE
08.4 – LASTAOLA
08.5 – MUTIOZABAL
08.6 – IRIGOINTXO
08.7 – ENALUZE
08.8 – ERRIBERAKO KALEA
08.9 – LASAO
08.10 – ARBURU
09. ARTIKULA – AITZASATE BIDEA
10. URDAIRA BIDEA
11. MAPILLERREKA BIDEA
11.1 – MAPILLERREKA SARRERA BERRIA
11.2 – MAPILGO PORTUA
12. GOMENTZAENEA BIDEA
12.1 – INTXAURRETA
13. ARRILLAGA BIDEA
14. TXOKOALDE – SANTUENEA BIDEA
14.1 – LUTXIENEA
14.3 – ERROIZPE
14.4 – SAN ESTEBAN
14.5 - SAÑARRIENEA
15. ITZAO
15.1 – LIPUTZABAL
15.2 – ARROARRO - ITZAO
15.3 – ERREKALUZE
16. SAN ESTEBAN – AIA
16.1 – IPARRAGIRRE
16.2 – BERORTZA - ZIORTZA
17. OIARDOKO BIDE ZAHARRA
17.1 – BERNAKOITZ
18. SAN ESTEBAN BIDEA
18.1 – GOIKOERROTA
19. IGARTZAZABAL BIDEA
19.1 – ETUMETA BIDEA
20. BERRAIARTZA BIDEA

21. TRENBIDE ZAHARRAREN BIDEA
22. FERMINDEGI BIDEA
    22.1 – GALARDIAZPI
23. URTEAGA BIDEA
24. URTEAGAKO BIDE ZAHARRA
25. URTEAGA – SAN ESTEBAN BIDEA
    25.1 AITZMURGIL
26. USURBILGO ERRIBERAKO BIDEA
    26.1 KALEZAR – IRURUBIETA

ZUBIETA

Z-01. SANTUENEA - LASARTE BIDEA
    Z-01.1 – AMIDI – URTEAGA
    Z-01.2 – IRURUBIETA
    Z-01.3 – BARRENETXE
    Z-01.4 – TXIKIERDI
    Z-01.5 – IURRITZA
    Z-01.6 – TELLERI
Z-02. PETRITZA BIDEA
    Z-02.1 – ETXETXO
    Z-02.2 - BERRIDI
Z-03. ARAETA – JUANASORO BIDEA
Z-04. HIPODROMO BIDEA (ARRAPIDE - BUGATI)
Z-05. GOIKOETXEA BIDEA
Z-06. GOIARAN BIDEA
Z-07. BIDEGURUTZETA BIDEA
Z-08. BERRIDI – BIDEGURUTZETA BIDEA
Z-09. BUGATI – KARRAMIOLATZ BIDEA
Z-10. ORIAKO ITXIA BIDEA
Z-11. BIDEGURUTZETA – LETABIDE BIDEA
Z-12. LETABIDE – LETEUN BIDEA
Z-13. LERTXUNDI – OIANGUREN BIDEA
Z-14. ARBITZA BIDEA
Z-15. ARTZABALETA – LETABIDE BIDEA

Z-16. ARTZABALETA – OLAIKO BIDEA

Z-17. AMIDIGOIA – OLAZABAL BIDEA

HERRI-BIDE BERRIAK

B-01. ARRATZAIN BIDEA

B-02. EGIOLETA BASERRIETAKO BIDEA

B-03. URKAMENDI-IARBE BIDEA

B-04. ARPIDEGIETA BIDEA

B-05. SAIZAR BIDEA

B-06. ALDAPETA

B-07 EIZAZPI-ORIAGAIN AGINAGAKO ERRIBERAKO BIDEA

B-08 ELUTX BIDEA

ZB-07. LERTXUNDI BIDEA

ZB-08. ZUASTI BIDEA

ZB-09. ETXEBERRI BIDEA

01. ARPITA BIDEA

HASIERA: Maskolaizko zubian, Usurbil eta Donostiako Ibaeta auzoko mugan.

BUKAERA: N-634 errepidean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Arpitaberri, Arpidegieta, Intxuintzabal, Zelaiaundi, Andrenagusi eta Itxaskue baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
MASKOLAIZKO ZUBIA - ARPITABERRI	150 m.	1,5 m.	Lurra	Zikina
ARPITABERRI - INTXUINTZABAL	711 m.	1,3 - 1,7m.	Lurra	Ona
INTXUINTZABAL - ERREPIDEA	1.772 m.	3,6 - 4,0 m.	Asfaltoa	Ona
+ 01.1 ADARRA: BENTAZIKIN	991 m.	3,8 m.	Asfaltoa	Ona
+ 01.2 ADARRA: ELOR	127 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
+ 01.3 ADARRA: ZALDIERREKA	170 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
	478 m.	2,0 m.	Lurra	Ona
	321 m.	-	Lurra	Galdua
+ 01.4 ADARRA: ESPERANTZA	155 m.	2,8 m.	Hormigoia	Ona
+ 01.5 ADARRA: ZELAIAUNDI	100 m.	2,8 m.	Lurra	Ona
	1000 m.	1,3 - 1,7m	Lurra	Ona/Zikina
+ 01.6 ADARRA: EGITXIKI	650 m.	1,3 - 1,7m	Lurra	Zikina

LUZERA: 6.625 m.

EGOERA: Bidea orokorrean egoera onean aurkitzen da, 01.3 bide-adarra izan ezik. Gainera pasatzea eragozten duen itxitura bat dago. 01.5 bide-adarra garbia dago, otadi batek puntu batean bidea mozten badu ere. 01.6 bidearen azken zatia zikina dago, eta amaieran A bidearekin loturarik ez dago, ezpondaren gainean amaitzen baita.

ERABILERAK: Inguruko baserri eta lursailetara sarbide moduan erabiltzen da, baita Donostiako Ibaeta eta Añorga auzoetara joateko ere.

MUGAKIDEAK: bide honek katastroko lurzati edo partzela hauekin du muga:

- Eskuinean: 6. poligonoko 1, 2, 13, 10, 165, 37, 14, 12, 98, 21, 107, 109, 101, 100, 28, 36 lurzatiak.
- Ezkerrean: 6 poligonoko 1, 2, 13, 8, 10, 4, 16, 154, 20, 106, 105, 104, 103, 31, 34, 36 lurzatiak.

01.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 1. poligonoko 1, 4 lurzatiak.
- Ezkerrean: 1. poligonoko 1 lursaila eta 6. poligonoko 1, 3 lurzatiak.

01.2 Bide-adarra

- Eskuinean: 6. poligonoko 165, 10 lurzatiak.
- Ezkerrean: 6. poligonoko 10 lurzatia eta Donostiako udalerria.

01.3 Bide-adarra

- Eskuinean: 6. poligonoko 31, 23, 164, 82, 158, 162 lurzatiak.
- Ezkerrean: 6. poligonoko 34, 33, 22, 25, 16, 86, 85, 50 lurzatiak.

01.4 Bide-adarra

- Eskuinean: 6. poligonoko 34, 26 lurzatiak.
- Ezkerrean: 6. poligonoko 34, 102, 26 lurzatiak.

01.5 Bide-adarra

- Eskuinean: 6. poligonoko 14, 161, 167, 159, 168, 143, 38, 35, 122 lurzatiak.
- Ezkerrean: 6. poligonoko 166, 161, 15, 160, 169, 38, 35, 172 lurzatiak.

01.6 Bide-adarra

- Eskuinean: 6. poligonoko 83, 144, 111, 18, 9 lurzatiak.
- Ezkerrean: 6. poligonoko 83, 19, 111, 24 lurzatiak.

02. IBARROLA BIDEA

HASIERA: Usurbil eta Igeldoren arteko mugan, Baldazar baserritik hurbil.

BUKAERA: Kalezar auzoan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Errikoetxea, Lekuberri, Pikotagain, Ibarrolaundi, Buenavista, Ugartetxiki eta Usaskue baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
MURGIL BIDEA - BENTAZIKIN	706 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
BENTAZIKIN - KALEZAR	2.938 m.	3,6 - 4,0 m.	Asfaltoa	Ona
+ 02.1 ADARRA: IBARROLATXIKI	459 m.	2,8 m.	Hormigoia	Ona
+ 02.2 ADARRA: LARBAINGO BIDE	634 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
ZAHARRA	46 m.	1,5 m.	Lurra	Itxia
	198 m.	1,5 m.	Lurra	Ona
+ 02.3 ADARRA: IARTZA	355 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
+ 02.4 ADARRA: TROIA	410 m.	6,0 m.	Asfaltoa	Ona
+ 02.5 ADARRA: TXAPARRENBERRIKO ALDAPA	138 m.	2,6 m.	Hormigoia	Ona
+ 02.6 ADARRA: USASKUELARRE	230 m.	1,5 m.	Lurra	Ona/Zikina
+ 02.6 ADARRA: USASKUELARRE (HARANE)	210 m.	2,5 m.	Hormigoia	Ona

LUZERA: 6.312 m.

EGOERA: Ona, Larbain eta Troia baserrien arteko zati txiki batean izan ezik landaretzaz itxia baitago. 02.2 bide-adarrean itxitura batzuk daude. 02.6 bide-adarreko goiko aldean itxitura batek bidea oztopatzen du.

ERABILERAK: Bide hau asko erabiltzen da, bai inguruko baserrietara eta baita Usurbilgo goiko baserrietara eta Igeldora joateko ere.

OHARRAK: 02.4 bideari lotuta, Felix Olasagasti Múgica, Jose Maria Izaguirre eta Julian Zarauz jaunek 1974an Udal-plenoak harturiko erabaki bat aurkeztu dute. Bertan esaten da Udalak adostu zuela 02.4 bidea (Troia bidea) txukundu eta zabaltzeko okupatu zituen lurren jabeen eskubideak onartzea. Egungo neurketen arabera, bakoitzak utzitako metro koadro kopurua azaldu dute (Ikusi 1697 sarrera zenbakia duen alegazioa. 2011ko apirilaren 15a, Hirigintza).
02.6 Usaskuelarre bidea bi zatitan marraztu da: bata Harane futbol zelaia inguratuz udalaren partzelatik doana, eta bestea, 05/032 partzelatik gora, 02 bidearekin bat egin arte igotzen dena.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati edo partzela hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 1. poligonoko 6, 4 lurzatiak, 5. poligonoko 2, 3, 4, 6, 7, 10, 11, 147, 146, 13, 169, 160, 23, 173, 20 , 21, 188, 24, 28, 164, 141, 26, 36, 225, 33, 34, 29, 156, 154, 153, 30, 150, 152, 162, 29, 44, 47 lurzatiak, 6. poligonoko Hiri Lurra.
- Ezkerrean: 1. poligonoko 6, 3, 4 lurzatiak, 6. poligonoko 3, 42, 43, 44, 55, 124, 40, 131, 130, 46 lursailak, 5. poligonoko 13, 172, 20 lurzatiak. 6. poligonoko 157, 123, 146, 145, 135, 133, 132, 138, 54, 134, 142, 58, 59, 60 lurzatiak eta Hiri-lurra.

02.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 5. poligonoko 13, 172, 20 lurzatiak.
- Ezkerrean: 6. poligonoko 46, 39, 157 lurzatiak.

02.2 Bide-adarra

- Eskuinean: 6. poligonoko 123, 49, 50, 155, 51, 147 lurzatiak.
- Ezkerrean: 6. poligonoko 157, 149, 162, 50, 151, 51, 57 lurzatiak.

02.3 Bide-adarra

- Eskuinean: 6. poligonoko 54, 155 lurzatiak.
- Ezkerrean: 6. poligonoko 54, 138, 155 lurzatiak.

02.4 Bide-adarra

- Eskuinean: 6. poligonoko 58, 56, 51, 57 lurzatiak.
- Ezkerrean: 6. poligonoko 142, 137, 136, 58, 51, 147, 57 lurzatiak.

02.5 Bide-adarra

- Eskuinean: 6. poligonoko 60, 59 lurzatiak.
- Ezkerrean: 6. poligonoko 59 lurzatia.

02.6 Bide-adarra

- Eskuinean: 5. poligonoko 35, 225, 163, 38, 31, 138 lurzatiak.
- Ezkerrean: 5. poligonoko 208, 32,138 lurzatiak.

03. EGIOLETA BIDEA

HASIERA: Usurbil eta Igeldoren arteko mugan.

BUKAERA: Usurbilgo herrigunean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Egioleta, Arratzainberri, Egiluzeaundi eta Ugartetxeberri baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
IGELDOKO MUGA - AUTOPISTA	633 m.	3,0 m.	Asfaltoa	Ona
AUTOPISTA - ARRATZAIN	446 m.	3,2 m.	Hormigoia	Ona
ARRATZAINBERRI - EGILUZEAUNDI	361 m.	2 m.	Lurra	Ona
EGILUZE - UGARTETXEBERRI	807 m.	1,4 - 2 m.	Lurra	Ona
	807 m.	2,5 m.	Lurra	Ona
UGARTETXEBERRI - HERRIGUNEA	398 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
+ 03.1 ADARRA: EGIOLETATXIKI	109 m.	1,5 m.	Lurra	Ona
+ 03.2 ADARRA: URTETA	463 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
+ 03.4 ADARRA: EGILUZETXIKI	874 m.	4,0 m.	Hormigoia	Ona
+ 03.5 ADARRA: ALSUA	52 m.	1,7 m.	Lurra	Ona
	192 m.	2,0 m.	Legarra	Ona
	190 m.	2,5 m.	Hormigoia	Ona

LUZERA: 5818 m.

EGOERA: Orokorrean ona, bi zati izan ezik: Arratzainberri eta Egiluzeaundi artean bata landaretzaren ondorioz zikintzen hasia dagoelako, eta Egiluzeaundi eta Ugartetxeberri artean bestea bidea sasitza medio erdi itxia aurkitzen delako.
Bide-adarrak ondo daude, 03.3 Arratzainerako bide-adarra izan ezik. Utzia dago zati batean ordezko bide hobeak daudelako.

ERABILERAK: Baserri eta lursailetara sartzeko erabiltzen da.

OHARRAK: 03.5 bidea “Alsua estrata” izenarekin aipatzen da dokumentu zaharretan.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 1. poligonoko 11, 9, 7, 63, 67 lurzatiak, 5. poligonoko 16, 17, 19, 178, 175, 37, 40, 42, 205, 43, 41, 96, 109, 117, 123, 227, 51 lurzatiak.
- Ezkerrean: 1. poligonoko 11, 9, 109, 7, 69, 67 lurzatiak, 5. poligonoko 16, 18, 180, 179, 151, 175, 235, 22, 222, 27, 161, 39, 38, 31, 50, 49, 244 lurzatiak.

03.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 1. poligonoko 9, 7 lurzatiak.
- Ezkerrean: 1. poligonoko 7 lurzatia.

03.2 Bide-adarra

- Eskuinean: 1. poligonoko 7 lurzatia.
- Ezkerrean: 1. poligonoko 7 lurzatia.

03.4 Bide-adarra

- Eskuinean: 5. poligonoko 16, 5, 9, 6 lurzatiak.
- Ezkerrean: 5. poligonoko 16, 5, 4 lurzatiak.

03.5 Bide-adarra

- Eskuinean: 5. poligonoko 49, 45, 29, 44 lurzatiak.
- Ezkerrean: 5. poligonoko 49, 48, 31, 29 lurzatiak.

04. ARRATZAIN BIDEA

HASIERA: Igeldoko mugan, Artikulako Iturrian.

BUKAERA: Usurbilgo herrigunean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Artikula, Borda, Arratzain, Olloki, Enbillenea eta Agerre baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
UDALERRI MUGA - ARRATZAIN	1.211 m.	2,7 - 3,1 m.	Hormigoia	Ona
ARRATZAIN - HERRIGUNEA	114 m.	3,3 m.	Asfaltoa	Ona
	326 m.	3,3 m.	Hormigoia	Ona
	1.939 m.	3,3 m.	Asfaltoa	Ona
+ 04.2 ADARRA: TXANTXONENEA	558 m.	1,5 m.	Lurra	Ona

LUZERA: 3.590 m.

EGOERA: Ona. 04.1 bide adarrean, pasatzea eragozten duten itxitura batzuk daude. Bide-adar horrek 05a gurutzatzen du eta Arratzainborda parean 04 bidearekin bat egiten du. 04.2 bide-adarrean daudenetatik, berriz, pasatzea badago.

ERABILERAK: Bide hau oso erabilia da, zenbait baserritara, lursailetara eta Igeldora joateko.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 1. poligonoko 14, 114, 49, 13, 75, 58, 60, 108, 100, 63, 99, 98, 65 lurzatiak, 5. poligonoko 57 , 56, 203, 55 , 58, 59, 60, 224, 223, 54, 198, 201, 197, 200, 199, 196, 239, 240, 241, 228, 70, 71, 72, 73, 74, 86, 140, 100, 99, 101, 102, 103, 106, 87, 118, 230, 229 lurzatiak.
- Ezkerrean: 1. poligonoko 14, 13, 12, 66, 108, 100, 63, 103, 102, 101, 65 lurzatiak eta 5. poligonoko 57, 204, 55, 143, 54, 157, 238, 144, 202, 243, 93, 88, 83, 92, 89, 91, 165, 139, 113, 166, 112, 114 lurzatiak.

04.2 Bide-adarra

- Eskuinean: 5. poligonoko 60, 59, 58 lurzatiak.
- Ezkerrean: 5. poligonoko 60, 59,148 lurzatiak.

05. ETZABAL BIDEA

HASIERA: Ibarrola bidean (02 erref.), Artxubietako bidegurutzean.

BUKAERA: Orioko udalerriko mugan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Artxubieta, Arratzainberri, Arratzain, Txantxonenea, Etzabal, Ferminenea, Arrillagatxiki, Arrillagaundi eta Gaztelu baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
02 BIDEA - ARRATZAINBERRI	832 m.	3,0 m.	Hormigoia eta Asfaltoa	Ona
ARRATZAINBERRI – 04 BIDEA	311 m.	1,7 - 2,0 m.	Lurra	Ona
	102 m.	2,0 m.	Legarra	Ona
04 BIDEA - BURNIGURUTZEA	1.865 m.	3,0 m.	Asfaltoa	Ona
BURNIGURUTZEA - ORIO	1.898 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
+ 05.1 ADARRA: ENTZARRAIN	167 m.	1,2 m.	Lurra	Erdi itxia
	333 m.	1,5 m.	Lurra	Itxia
	91 m.	1,5 m.	Lurra	Erdi Itxia
+ 05.2 ADARRA: ERREKATXOTA	609 m.	1,5 m.	Lurra	Itxia
+ 05.3 ADARRA: GAZTELU	507 m.	2,6 m.	Hormigoia	Ona
	320 m.	1,8 m.	Lurra	Ona

LUZERA: 7.035 m.

EGOERA: Bidea egoera onean aurkitzen da, 05.1 eta 05.2 bide-adarrak izan ezik. Ia bere osotasunean utziak eta sasiz beteta daude, eta ezin dira erabili. Bide horietan gainera, hinbat itxitura daude.

ERABILERAK: Baserri eta lursailetara sartzeko erabiltzen da.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 5. poligonoko 2 lurzatia, 1. poligonoko 5 , 7, 68, 67, 64, 101, 65, 57, 106, 104, 59, 73, 56, 49, 50, 46, 44, 43, 42, 37, 39, 38 lurzatiak, 2. poligonoko 166, 164, 163, 201, 189, 168, 225, 226 lurzatiak.
- Ezkerrean: 5. poligonoko 2, 142 lurzatiak, 1. poligonoko 5 lursaila, 5. poligonoko 3, 1, 16, 176, 57, 56, 203, 55, 58, 148, 61, 62 lurzatiak, 2. poligonoko 3, 5, 9, 10, 7, 25, 26, 27, 241, 166, 164, 163, 201, 184, 185, 183, 225 lurzatiak.

05.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 5. poligonoko 16, 5, 4 lurzatiak.
- Ezkerrean: 5. poligonoko 1, 3 lurzatiak.

05.2 Bide-adarra

- Eskuinean: 5. poligonoko 176, 57, 204, 55, 143 lurzatiak.
- Ezkerrean: 5. poligonoko 17, 53, 52, 143 lurzatiak.

05.3 Bide-adarra

- Eskuinean: 2. poligonoko 225, 187, 178, 181 lurzatiak.
- Ezkerrean: 2. poligonoko 225, 187, 178 lurzatiak.

06. ZUMITZAGA BIDEA

HASIERA: Etzabal bidean (05 erref.).

BUKAERA: N-634 errepidean, Kaparotz baserriaren parean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Urkamendi, Zumitzaga, Udarregi eta Kaparotz baserria.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
05 BIDEA - URKAMENDI	380 m.	1,4 - 1,8 m.	Lurra	Ona
URKAMENDI - KAPAROTZ	1.120m.	2,5 - 3,0 m.	Asfaltoa	Ona

LUZERA: 1.500 m.

EGOERA: Ona. Lurrezko zatia garbia eta nabaria da. Zati honetan pasatzea eragozten ez duten itxiturak daude.

ERABILERAK: Inguruko baserri eta lursailetara sartzeko erabiltzen da.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 2. poligonoko 3, 2, 1, 200, 37, 38, 36 lurzatiak.
- Ezkerrean: 5. poligonoko 62, 63, 65, 66, 76, 78, 77 lurzatiak.

07. IBINDOS BIDEA

HASIERA: Zumitzaga bidean (06 erref.), Urkamendi baserrian.

BUKAERA: N-634 errepidean, Lasao baserrian.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Aranburu eta Ibindos baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
06 BIDEA - ARANBURU	452 m.	2,5 - 2,8 m.	Hormigoia	Ona
ARANBURU - IBINDOS	381 m.	2,2 m.	Lurra	Ona
IBINDOS - LASAO	990 m.	2,3 m.	Lurra	Hondatuta
LASAO - ERREPIDEA	38 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
+ 7.1 ADARRA: INTXUSPE	597 m.	2,2 m.	Lurra	Ona
+ 7.2 ADARRA: MALLUKO PORTUA	597 m.	2,2 m.	Lurra	Ona

LUZERA: 2.458 m.

EGOERA: Ona. Ibindos eta Lasao arteko lzatia hondatuta dagoen mendiko pista da. 07.1 bide-adarraren azkenengo zatian, lur jausiak medio ezin da pasa.

ERABILERAK: Baserri eta lursailetara sartzeko erabiltzen da.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 2. poligonoko 3, 4, 41, 193, 49 lurzatiak.
- Ezkerrean: 2. poligonoko 3, 39, 40, 41, 193, 211, 42, 52, 45, 243, 49 lurzatiak.

07.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 2. poligonoko 41, 246 lurzatiak.
- Ezkerrean: 2. poligonoko 41, 36 lurzatiak.

07.2 Bide-adarra

- Eskuinean: 2. poligonoko 41, 246 lurzatiak.
- Ezkerrean: 2. poligonoko 41, 36 lurzatiak.

08. AGINAGA - ORIOKO BENTA BIDEA

HASIERA: Usurbil eta Orio arteko mugan, Orioko Bentaren inguruan.

BUKAERA: Aginagako herrigunean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Eguzkitza, Urdaira, Arburu, Arrate, Izpira, Mendi Gain, Irigointxoberri eta Irigointxozar.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	178	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
ORIORAKO BIDEA - URDAIRA	178 m.	0,8 m.	Lurra	Erdi itxia
	577 m.	1,6 -2,0 m.	Lurra	Ona
URDAIRA - ARRATE	490 m.	2,8 - 3,4 m.	Hormigoia	Ona
ARRATE - IRIGOINTXO	90 m.	2,5 m.	Legarra	Ona
	344 m.	4,0 - 4,6 m.	Asfaltoa	Ona
	84 m.	2,0 m.	Lurra	Ona
	45 m.	1,8 m.	Asfaltoa	Ona
	350 m.	1,5 m.	Lurra	Ona
	87 m.	2,5 m.	Legarra	Ona
	1.135 m.	4,0 - 4,6 m.	Asfaltoa	Ona
IRIGOINTXO - AGINAGAKO HERRIGUNEA	520 m.	3,0 m.	Asfaltoa	Ona
+ 08.1 ADARRA: ORIORAKO BIDE	120 m.	1,5 m.	Lurra	Erdi itxia
ZAHARRA	207 m.	1,5 m.	Lurra	Itxia
+ 08.2 ADARRA: AITZASATE		1,2 - 1,4		
	640 m.	m.	Lurra	Ona
+ 08.4 ADARRA: LASTAOLA	650 m.	3,5 - 4,0 m.	Asfaltoa	Ona
	110 m.	2,3 m.	Hormigoia	Ona
	130 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
+ 08.5 ADARRA: MUTIOZABAL	360 m.	3,5 m.	Hormigoia	Ona

+ 08.6 ADARRA: IRIGOINTXO	45 m.	1,5 m.	Lurra	Ona
	58 m.	1,2 m.	Lurra	Itxia
	80 m.	1,2 m.	Lurra	Ona
	50 m.	2,5 m.	Hormigoia	Ona
+ 08.7 ADARRA: ENALUZE	100 m.	2 m.	Hormigoia	Ona
	150 m.	2 m.	Lurra	Ona
+ 08.8 ADARRA: ERRIBERAKO KALEA	190 m.	1,5 – 2,5 m.	Hormigoia	Ona
+ 08.9 ADARRA: LASAO	340 m.	1,5 m.	Lurra	Itxia
+ 08.10 ADARRA: ARBURU	60 m.	3 m.	Hormigoia	Ona
+08.11 ADARRA: ELUTX	151 m.	3,5 m	Hormigoia	Ona

LUZERA: 7.341 m.

EGOERA: Orokorrean ona, bide hasieran landaretzagatik erdi itxia aurkitzen den zati txiki bat izan ezik. 08.1 bidea itxia dago erabat, eta hainbat alanbre hesik bidea mozten dute. 08.2 bide-adarra garbia eta nabaria da, nahiz eta tarte batzuetan bidea landaretzagatik ixten hasi. 08.3 ezabatu egin dugu, 08 bidea jarraia egiteagatik. 08.6 bide-adarraren zati bat itxia dago landaretzaren indarrez, eta pasatzea eragozten duen itxitura dago. 08.9 bidea erabat itxita dago.

ERABILERAK: Baserri, lursail eta Orioko Bentetara joateko.

OHARRAK: 08.4 eta 08.5 bideari lotuta, Jose Mari Mayoz Pagola jaunak bide horien zabaltzea egiteko utzitako lurrak aintzat hartzea eskatu du (bide bakoitzarentzat utzitako metro kuadro kopurua eta xehetasunak honako alegazioan jasota daude: 1699 sarrera zenbakiarekin, 2011ko apirilaren 15a, Hirigintza).

2023. urtean Usurbilgo Udalak Aginagako kaxkoa eta Elutx kalea lotzen dituen oinezko bidea gehitu zaio herri bidearen inbentarioari.

08.8 adarra berezarri da, lehen sortutako 08.8a, 08.8b eta 08.8c adarrak kenduz, modu honetan, Donostiako Lehen Auzialdiko 5 zk.ko epaitegiak igorritako 420/2025 sententziak esandakoa jasotzen da.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 1. poligonoko 113 , 33 , 35, 27, 29, 32 lurzatiak, 2. poligonoko 159, 164, 166, 27, 165, 171, 90, 92, 131, 247, 111, 130, 158, 157, 156, 155, 154, 144, 148, 149, 197, 227, 151, 237, 152, 135, 136, 124, 229, 123, 238, 121, 234, 104, 105, 102, 106, 101, 100, 99 lurzatiak.
- Ezkerrean: 1. poligonoko 113 , 33 , 76, 32, 21, 40 lurzatiak, 2. poligonoko 241, 27, 202, 190, 90 , 91, 12, 11, 14, 76, 77, 78, 79, 80, 81, 82, 83, 34, 32, 29, 28, 35, 68, 67, 71, 72 lurzatiak.

08.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 1. poligonoko 33, 113 lurzatiak.
- Ezkerrean: 1. poligonoko 33, 113, 32 lurzatiak.

08.2 Bide-adarra

- Eskuinean: 1. poligonoko 32, 76, 28, 110, 111 lurzatiak.
- Ezkerrean: 1. poligonoko 32, 76, 110, 111, 28 lurzatiak.

08.4 Bide-adarra

- Eskuinean: 2. poligonoko 137, 238, 122, 239, 107, 108. Hiri-lurrak, 3. poligonoko 71 lurzatia
- Ezkerrean: 2. poligonoko 124, 229, 238, 120, 117, 104, 103, Hiri-lurrak, 3. poligonoko 86, 203, 66, 65 lurzatiak.

08.5 Bide-adarra

- Eskuinean: 2. poligonoko 238, 125, 126, 138 lurzatiak.
- Ezkerrean: 2. poligonoko 238, 122, 240, 126, 115 lurzatiak.

08.6 Bide-adarra

- Eskuinean: 2. poligonoko 28, 59, 202 lurzatiak.
- Ezkerrean: 2. poligonoko 29, 60, 212, 202 lurzatiak.

08.7 Bide-adarra

- Eskuinean: 3. poligonoko 63, 55, 204, 54, 53, 52, 51, 50, 49 lurzatiak.
- Ezkerrean: 3. poligonoko 31, 43, 46, 47, 48, 49 lurzatiak.

08.8 Bide-adarra

- Hiri lurrak.

08.9 Bide-adarra

- Eskuinean: 3.poligonoko 60, 30, 31, 33, 228, 253 lurzatiak.
- Ezkerrean: 3. poligonoko 29, 31, 210, 33, 53 lurzatiak.

08.11 Bide-adarra

- Eskuinean: Hiri lurrak.
- Ezkerrean. Hiri lurrak.

09. ARTIKULA – AITZASATE BIDEA

HASIERA: Donostia eta Usurbilen arteko mugan, Aitzasaten.

BUKAERA: Aintzia bidean (C. erref.).

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Txakurtegia.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
AITZASATE - TXAKURTEGIA	1.082 m.	1,2 m.	Lurra	Ona
	165 m.	0,8 m.	Lurra	Erdi itxia
	40 m.	1,7 m.	Lurra	Ona
TXAKURTEGIA - C. BIDEA	37 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona

LUZERA: 1.324 m.

EGOERA: Orokorrean, bidea ondo dago txakurtegi ondoan dagoen zatia izan ezik, landaretzagatik erdi itxia baitago. Itxitura batzuk daude baina ez dute pasatzea eragozten.

ERABILERAK: Lursailetara sarbide da. Baita Orio aldera joateko bidea ere.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 1. poligonoko 28, 22, 19, 17, 16, 53, 52, 15 lurzatiak.
- Ezkerrean 1. poligonoko 28, 22, 19, 17, 15, 14 lurzatiak.

10. URDAIRA BIDEA

HASIERA: Usurbil eta Donostiaren arteko mugan, Polipasotik gertu.

BUKAERA: Aginagatik Orioko Bentara bidean (08. Erref.), Urdaira baserrian.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
IGELDO-ORIO BIDEA - URDAIRA	74 m.	2,4 m.	Legarra	Ona
	496 m.	1,5 m.	Lurra	Galdua
	933 m.	1,5 - 2,0 m.	Lurra	Ona

LUZERA: 1.503 m.

EGOERA: Orokorrean bidea ondo dago, lehenengo zati bat izan ezik, otadiak eta sasiak hartuta baitago.

ERABILERAK: Iursailetara sarbidea da.

OHARRAK: Garai batean Aginaga goialdetik Igeldo eta Donostiara joateko bidea zen. Galdua dagoen zatia*," Karkotako estrata"* izenez ezagutzen da.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 1. poligonoko 86, 85, 84, 15, 53, 16, 92, 54, 16, 81, 19, 22, 94, 30, 31, 32 lurzatiak.
- Ezkerrean: 1. poligonoko 14, 15, 53, 16, 92, 54, 16, 81, 19, 78, 94, 96, 32 lurzatiak.

11. MAPILLERREKA BIDEA

HASIERA: Orioko udalerriko mugan, Tellegindegitik gertu

BUKAERA: N-634 errepidean, Uriberri etxearen ondoan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Tellegindegi eta Mapilerreka baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
ORIO - TELLEGINDEGI	50 m.	2 m.	Lurra	Ona
TELLEGINDEGI – GOROSTIDI	400 m.	2,5 m.	Hormigoia	Ona
GOROSTIDI - AUTOBIDEA	450 m.	1,5 - 1,8 m.	Lurra	Ona
08 BIDEA - 05 BIDEA	150 m.	1,2 m.	Lurra	Erdi Itxia
05 BIDEA - MAPILLERREKA	195 m.	--	Lurra	Galdua
	125 m.	< 1 m.	Lurra	Erdi Itxia
	160 m.	< 1 m.	Lurra	Ona
	115 m.	1,8 m.	Lurra	Ona
MAPILLERREKA - ERREPIDEA	100 m.	2,5 m.	Hormigoia	Ona
	50 m.	2,1 m.	Legarra	Ona
	50 m.	1,8 m.	Lurra	Ona
+ 11.1 ADARRA: MAPIL SARRERA BERRIA	310 m.	2,5 - 3 m.	Hormigoia /Asf.	Ona
+ 11.2 ADARRA: MAPILGO PORTUA	60 m.	2 m.	Lurra	Ona

LUZERA: 2.215 m.

EGOERA: A-8 autobideak Tellegindegira zihoan herri-bide zaharra moztu zuen. Ondorioz bi zatitan jaso dugu. Arrillagatxiki inguruan itxi samar dago, bidezidor bihurtua edo erabat galdua ez dagoenean.

ERABILERAK: Baserri eta lursailetara sarbidea da.

OHARRAK: Arraterainoko bidearen lehen zatia Tellegindegi, Gorostidi eta Arburu baserrietara iristeko jatorrizko bidea zen, baina A-8 autobidea eraikitzerakoan moztu egin zuten. Bideak Orioraino jarraipena zuen, baina aipatutako autobide berak hori ere moztu zuen. 11.1 bide-adarra Mapillerrekarako sarrera berria da, errekaren ezkerraldetik doana. Ez da 11 bide nagusiarekin elkartzen, jabego pribatua baita biak lotzen dituen zatia. Kostako errepidepetik igaro eta Mapil aurrean erriberetako G bidearekin bat egiten du.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 1. poligonoko 34 lursaila eta 2. poligonoko 161, 159, 164, 172, 133, 235, 254, 173 lurzatiak.
- Ezkerrean: 1. poligonoko 36, 34, 35, 26, 123 lurzatiak eta 2. poligonoko 164, 172, 133, 196, 233, 128 lurzatiak

11.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 2. poligonoko 156, 157,158, 130,169 lurzatiak.
- Ezkerrean: 2. poligonoko 128, 233, 195 lurzatiak.

11.2 Bide-adarra

- Ezkerretik: 2. poligonoko 109 lurzatia.

12. GOMENTZAENEA BIDEA

HASIERA: Etzabal bidean (05. erref.).

BUKAERA: N-634 errepidean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Sariagoikoetxea eta Gomentzaenea baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
05 BIDEA - GOMENTZAENEA	933 m.	3,2 - 3,4 m.	Hormigoia	Ona
+ 12.1 ADARRA: INTXAURRETA	118 m.	3,2 - 3,4 m.	Asfaltoa	Ona

LUZERA: 1.051 m.

EGOERA: Ona.

ERABILERAK: Baserri eta lursailetara sarbidea da.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 2. poligonoko 184, 201, 209, 222, 177, 181 lurzatiak.
- Ezkerrean: 2. poligonoko 184, 201, 244, 222, 205, 182 lurzatiak.

12.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 2. poligonoko 182 lurzatia.
- Ezkerrean: 2. poligonoko 205, 182 lurzatiak.

13. ARRILLAGA BIDEA

HASIERA: Etzabal bidean (05. erref.)

BUKAERA: N-634 errepidean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK Arrillagaundi eta Arrillagaazpi (Aldapa) baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
05. BIDEA - ARRILAGAUNDI	190 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
ARRILLAGAUNDI - ARRILLAGAZPI	412 m.	1,3 - 1,7 m.	Lurra	Ona
ARRILLAGAZPI - ERREPIDEA	395 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona

LUZERA: 997 m.

EGOERA: Bidea egoera onean dago. Lurrezko zatian itxitura batzuk daude baina ez dute pasatzea eragozten. Arrillagazpira iritsi aurretik, bide erdian txabola bat dago, eta honek pasatzea eragozten du.

ERABILERAK: Baserri eta lursailetara sarbidea da.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 2. poligonoko 163, 222, 175, 176 lurzatiak.
- Ezkerrean: 2. poligonoko 163, 175, 176 lurzatiak.

14. TXOKOALDE – SANTUENEA BIDEA

HASIERA: N-634 errepidean, gasolinera parean.

BUKAERA: Santuenea auzoan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Hainbat etxe, Txokoalde auzoko herrigunea, Torre, Goikoerrota, Gilisagasti, Zabalea baserriak, Berraiartzagoiena baserria eta Santuenea auzoa.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
TXOKOALDE - SANTUENEA	2.815 m.	4,0 m.	Asfaltoa	Ona
+ 14.1 ADARRA: LUTXIENEA	63 m.	1,8 m.	Lurra	Erdi itxia
+ 14.3 ADARRA: ERROIZPE	530 m.	3,0 m.	Lurra/harria	Ona
+ 14.4 ADARRA: SAN ESTEBAN	410 m.	4,0 m.	Asfaltoa	Ona
+ 14.5 ADARRA: SAÑARRIENEA	250 m.	1,5 m.	Lurra	Galdua / Itxia

LUZERA: 4.068 m.

EGOERA: Ona, Lutxienea eta Goikoerrotara bide-adarrak izan ezik. Bi horietan bideak nabaria izanagatik landaretza nagusitzen ari da. 14.5 bide-adarraren hasiera galdua eta sasiak jota dago. Amaieran burdinazko ate batek bidea mozten du.

ERABILERAK: Hau da bertakoek Usurbil eta Aginagara joateko erabiltzen duten bide nagusia baita San Esteban auzora eta Andatza mendira joateko ere.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 3. poligonoko 26, 23, 22, 1 lurzatiak, 8. poligonoko Hiri lurra, 50, 51, 72, 53, 42, 46, 33, 32, 34, 24, 39, 41, 30, 23, 76, 22, 21, 18 lurzatiak, Hiri-lurra, 61.

- Ezkerrean: 4. poligonoko 213, 212, 214, 211, 190 lurzatiak, Hiri lurra, 243, 247, 245, 54, 40, 78, 251, 249, 248, 272, 246, 244, 221, 271, 220, 218, 217, 290, 289, 288, 287, 286, 285, 284, 215 lurzatiak, Hiri-lurra, 117 lurzatia.

14.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 4. poligonoko 212, 214 lurzatiak.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 213, 214 lurzatiak.

14.3 Bide-adarra

- Eskuinean: 3. poligonoko 144 lurzatia.
- Ezkerrean: 3. poligonoko 144 lurzatia.

14.4 Bide-adarra

- Eskuinean: 8. poligonoko 30 lurzatia.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 23, 28, 24 lurzatiak.

14.5 Bide-adarra

- Eskuinean: 4. poligonoko 218, 216 lurzatiak.
- Ezkerrean: 4. poligonoko 219, 216 lurzatiak.

15. ITZAOKO BIDEA

HASIERA: Txokoalde - Santuenea bidean (14. erref.) Torre jauregiaren aurrean.

BUKAERA: Itzaoko erriberetan, baserriaren ondoan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Torre, Illunbe, Guardaenea eta Itzao baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
14. BIDEA - GELTOKIA	250 m.	3,6 m.	Asfaltoa	Ona
GELTOKIA - GUARDAENEA	515 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
GUARDAENEA - BIDEGURUTZEA	1.050 m.	3,0 m.	Legarra	Ona
BIDEGURUTZEA - ITZAO	2.100 m.	1,8 m.-2 m.	Lurra	Erdi itxia
+ 15.1 ADARRA: LIPUTZABAL	1.000 m.	0-8,1-5 m.	Lurra	Erdi itxia
+ 15.2 ADARRA: ARROARRO-ITZAO	1.220 m.	0-8,1-5 m.	Lurra	Itxia/ Galdua
+ 15.3 ADARRA: ERREKALUZE	950 m.	2,5 m.	Lurra/harria	Ona

LUZERA: 7.085 m.

EGOERA: Bidea ez dago egoera onean. Bai Irisasira igotzen den lehen zatia, baina ez Itzaoko erribereretara doazenak.

ERABILERAK: Txokoaldetik Itzaora iristeko bidea den 15a, Irisasi-Andatzara igotzeko lehengo zatia izan ezik, ez du gaur egun erabilera handirik. 15.1 bideak, berriz, Liputzabaleko Aritzokerra portutik Andatza-Irisasiko bidea zen, gaur egun erabilerarik gabe. 15.2a, aldiz, Itzaorako bidea, baina Arroarroko ibitik pasata. 15-3a, azkenik, Errekaluzera eta Arroarrora iristeko bidea da, baita garai batean Itzaoko eliz-bidea ere.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 8. poligonoko 97, 85 lurzatiak eta 03. poligonoko 187, 168 lurzatiak.

- Ezkerrean: 8. poligonoko 98, 96 lurzatiak eta 03. poligonoko 187, 209 eta 168 lurzatiak.

15.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 3. poligonoko 144 lurzatia.
- Ezkerrean: 3. poligonoko 144,117 lurzatiak.

15.2 Bide-adarra

- Eskuinean: 3. poligonoko 16,19 lurzatiak.
- Ezkerrean: 3. poligonoko 17 lurzatia.

16. SAN ESTEBAN – AIA BIDEA

HASIERA: Txokoalde - Santuenea bidean (14. erref.), Goikoerrota baserriaren ondoan.

BUKAERA: Aia udalerriko mugan, Ardunbeko errekan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Lartzandieta baserria.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
14. BIDEA - LARTZANDIETA	90 m.	1,6 m.	Lurra	Ona
	110 m.	1,6 m.	Lurra	Erdi Itxia
	60 m.	--	Lurra	Galdua
LARTZANDIETA – BERORTZA	1.500 m.	2,5 m.	Lurra	Ona
BERORTZA – AIAKO MUGA	1.050 m.	1,5 m.	Lurra	Itxia
+ 16.1 ADARRA: TXOKOALDE-LARTZANDIETA	60 m.	3,5 m.	Asfaltoa	Ona
	605 m.	2,7 m.	Hormigoia	Ona
+ 16.2 ADARRA: BERORTZA-ZIORTZA	750 m.	1,2 m.	Lurra	Ona
	1.330 m.	2,7 m.	Lurra	Ona
	190 m.	4 m.	Lurra	Ona

LUZERA: 5.745 m.

EGOERA: Lartzandietarainoko lehen zatia utzia eta sasiak jota dago, eta azken zatia desagertu egin da, belardi bihurtu delako. Berortzatik Aiako mugarainoko zatia ere ez dago oso egoera onean, sasiak jota baitago eta bertatik pasatzea ia ezinezkoa da.

ERABILERAK: Lehen eta azken zatiak ez dute erabilerarik. Lartzandietatik gora gas eroapenaren hodiak doan bidearen azpitik. Andatzako mendira igotzeko ere erabiltzen da.

OHARRAK: Hauxe zen garai batean Aiakoek San Estebanera etortzeko erabiltzen zuten bidea, eta alderantziz.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 8. poligonoko 42, 72, 102, 46 lurzatiak.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 42, 72, 46 lurzatiak.

16.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 8. poligonoko 72, 42, 99 lurzatiak.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 72, 42 lurzatiak.

16.2 Bide-adarra

- Eskuinean: 8. poligonoko 46 lurzatia.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 46 lurzatia.

17. OIARDOKO BIDE ZAHARRA

HASIERA: Igartzazabal bidean (19. erref.), Igartzabal baserritik gertu.

BUKAERA: Oiardon (16.1. erref.).

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
IGARTZAZABAL – OIARDOKO ERREKA	700 m.	2,5 m.	Lurra	Ona
OIARDOKO ERREKA – H BIDEA	630 m.	1,5 m.	Lurra	Ona
H BIDEA - OIARDO	350 m.	3 m.	Lurra	Ona
+ 17.1 ADARRA: BERNAKOITZ	1.120 m.	2,5 m.	Lurra	Ona

LUZERA: 2.800 m.

EGOERA: Ona, mendiko-pistak dira nagusiki.

ERABILERAK: Baso ustiaketarako eta baita 16 eta 19 bideak lotzeko ere.

OHARRAK: Dokumentu zaharretan *"camino viejo de Oiardo"* izenarekin ageri da. Igartzazabaletik Oiardora lehenik eta ondoren Ziortzara joateko erabiltzen zen.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 8. poligonoko 46 lurzatia.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 46 lurzatia.

18. SAN ESTEBAN BIDEA

HASIERA: Txokoalde - Santuenea bidean (14. erref.), Txokoaldeko herrigunean.

BUKAERA: Puela bidean (19. erref.), Oa baserriaren ondoan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Saltxipi, Aldatsa eta Lizardi etxea.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
TXOKOALDE - 14. BIDEA	487 m.	2,8 m.	Hormigoia	Ona
14 BIDEA - OIA	168 m.	2,5 m.	Asfaltoa	Ona
+ 18.1 ADARRA: GOIKOERROTA	247 m.	2,5 m.	Hormigoia	Ona

LUZERA: 902 m.

EGOERA: Bidea egoera onean dago, eta 18.1 bide-adarra ere bai.

ERABILERAK: Baserri nahiz lursailetara sarbidea da, eta San Esteban auzora iristeko. Txokoaldetik San Estebanera igotzeko bide zaharra da.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 4. poligonoko 302, 303, 243 ,245 ,251 ,272 lurzatiak, 8. poligonoko 24 lurzatia.
- Ezkerrean: 4. poligonoko 301, 243, 245, 246, 251, 272 lurzatiak, 8. poligonoko 39, 77 lurzatiak.

18.1 bide-adarra

- Eskuinean: 4. poligonoko 251, 300, 250 lurzatiak.
- Ezkerrean: 4. poligonoko 251 lursaila eta 8. poligonoko 40, 54 lurzatiak.

19. IGARTZAZABAL BIDEA

HASIERA: San Esteban auzoan (14.3 erref.).

BUKAERA: Andatza inguratzenduen pista nagusian (H bidea).

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Igartzazabal eta Puelaberri baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
SAN ESTEBAN - PUELABERRI	2.050 m.	2,5 - 3,0 m.	Hormigoia	Ona
PUELABERRI - SAGATZU	350 m.	2,0 - 3,0 m.	Lurra/Harria	Ona
SAGATZU - JUANASOROBURUA	400 m.	2,0 - 3,0 m.	Lurra/Harria	Ona
+ 19.1 ADARRA: ETUMETA BIDEA (16.2 BIDE-ADARRERAINO)	1.380 m.	1,5 - 2 m.	Lurra	Ona/zikina

LUZERA: 6.522 m.

EGOERA: Ona, lurrezko zatia mendi pista da. 19.1 bide-adarrak azkenengo zatia erdi galdua du landaretzagatik.

ERABILERAK: Baserri nahiz lursailetara eta Andatza mendira iristeko.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzatihauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 8. poligonoko 24, 34, 32, 35, 36, 73, 38, 37, 16, 14, 12, 11, 4, 5, 46 lurzatiak.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 74, 24, 57, 3, 32, 36, 73, 38, 37, 16, 14, 1, 6, 4, 5, 46 lurzatiak.

19.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 8. poligonoko 46 lurzatia.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 46 lurzatia.

20. BERRAIARTZA BIDEA

HASIERA: Txokoalde - Santuenea bidea (14. erref.) bidean, Berraiartzagoiena parean.

BUKAERA: Trenbide zaharraren bidean (21. erref.) Irabi parean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Berraiartzabarrena, Berraiartzabitartea eta Berraiartzagoiena.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
14 BIDEA - 21 BIDEA	950 m.	2,8 m.	Asfaltoa	Ona

LUZERA: 950 m.

EGOERA: Ona.

ERABILERAK: Baserri eta lursailetara joateko.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 4. poligonoko 221, 222, 235, 233, 225, 224, 226 lurzatiak.
- Ezkerrean: 4. poligonoko 221, 237, 235, 233, 225, 224, 228, 227, 283, 226 lurzatiak.

21. TRENBIDE ZAHARRAREN BIDEA

HASIERA: Txokoalde auzoan, Simonenea etxe parean.

BUKAERA: Zubietako mugan, Amidi baserietatik gertu.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Errotaberri, Sañarrienea, Santuenea auzoa, Ermotegitxiki eta Ermotegiaundi baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
TXOKOALDE - SANTUENEA	2.370 m.	2,5 m.	Asfaltoa / Hormigoia	Ona
SANTUENEA - ZUBIETA	700 m.	4,5 m.	Asfaltoa	Ona

LUZERA: 3.070 m.

EGOERA: Ona.

ERABILERAK: Santuenea auzorainoko lehen zatia gehienbat baserri eta lursailetara sartzeko erabiltzen da, baita ere ibiltoki bezala. Santueneatik aurrera, Zubietako auzora sartzeko erabiltzen da.

OHARRAK: Bidea Zubietatik barrena Txokoaldera zihoan trenbide zaharretik doa. Irabiko bihurgunean, herri bidea, berez, metro batzuk iparraldera zegoen.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 4. poligonoko: Hiri-lurra, 242, 259, 260, 237, 238, 263, 232, 231, 225, 230, 255, 229, 283, 226, 224, 223, 222, 219, 216, 294, 290, 289, 288, 287, 286, 285, 284, 215 lurzatiak. Hiri-lurra, 8. poligonoko 58, 17, 10, 64, 1 lurzatiak.
- Ezkerrean: 4. poligonoko: Hiri lurra, 188, 262, 256, 181, 180, 172, 171, 163, 152, 142, 151, 159, 149, 148, 142, 147, 146, 144, 143, 126, 121, 290, 289, 288, 287, 286, 285, 284, 120, 122, 119 lurzatiak. Hiri-lurra, 8. poligonoko 61, 62, 63, 58, 17, 10, 64, 2 lurzatiak.

22. FERMINDEGI BIDEA

HASIERA: Fermindegi.

BUKAERA: Trenbide zaharraren bidean (21. erref.), Ormazarreta izeneko parajean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Galardiazpikoa, Fermindegi eta Berraiartzabarrena baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
FERMINDEGI - IBIA	60 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
	70 m.	1,5 m.	Lurra	Ona
IBIA - BIZTEGI	270 m.	--	Lurra	Galdua
BIZTEGI - BERRAIARTZABARRENA	190 m.	1,2 m.	Lurra	Galdua
	120 m.	1,2 m.	Lurra	Ona
		60 m 20. bidetik		
BERRAIARTZABARRENA- 21. BIDEA	200 m.	1,5 m.	Lurra	Ona
+ 22.1 BIDE-ADARRA: GALARDIAZPI	300 m.	1,5 - 2 m.	Lurra	Ona

LUZERA: 1.210 m.

EGOERA: Bideak ibaia gurutzatzen zuen Fermindegi aurreko ibitik. Aspaldi da, ordea, zati hori erabiltzen ez dela, Txokoaldeko zubia eraiki zutenetik edo. Gaur egun zati hori uholdeak direla eta oso mugitua dago. Biztegi inguruan ere desagerturik dago bidea, eta zelai bilakatu dute. Gainerako bide zatiak onak dira, garbiak eta nabariak, nahiz eta puntu batzuetan landaretza asko hazi den. Itxitura batzuk daude zenbait puntutan, pasatzea eragosten dutenak.

ERABILERAK: Galardiazpikoa baserrira eta lursailetara joateko.

OHARRAK: Berraiartzabarrena baserrian bidea bertako teilapetik pasatzen da.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 4. poligonoko 275, 202, 274, 187, 186, 181, 232, 263, 234, 225, 233, 223 lurzatiak.
- Ezkerrean: 4. poligonoko 202, 274 , 276, 187, 257, 186, 181, 232, 263, 234, 225, 224, 223 lurzatiak.

22.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 4. poligonoko 202, 275, 209, 273, 214, 212 lurzatiak.
- Ezkerrean: 4. poligonoko 202, 275, 207, 208, 199, 273, 210, 211 lurzatiak.

23. URTEAGA BIDEA

HASIERA: Trenbide zaharraren bidean (21. erref.), Ermotegi baserritik gertu.

BUKAERA: Urteaga baserriaren parean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
21. BIDEA – URTEAGA BASERRIA	250 m.	3,0 m.	Asfaltoa	Ona

LUZERA: 250 m.

EGOERA: Ona

ERABILERAK: Urteaga baserrira eta inguruko partzeletara iristeko erabiltzen da.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 8. poligonoko 010, 067, 066, 065 lurzatiak.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 010 eta 064 lurzatiak.

24. URTEAGAKO BIDE ZAHARRA

HASIERA: Trenbide zaharraren bidean (21. erref.), Ermotegiaundi baserriaren ondoan.

BUKAERA: Aitzondoko iturriaren inguruan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
21. BIDEA - ERMOTEGIAUNDI	50 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
ERMOTEGIAUNDI- AITZONDO	140 m.	1-1,8 m.	Lurra	Ona / Zikina

LUZERA: 190 m.

EGOERA: Ermotegiaundi baserritik aurrera ez dago oso garbi.

ERABILERAK: Urteaga baserrira iristeko herri-bide zaharraren lehen zatia da. Gaur egun Aitzondoko iturriraino bakarrik iristen da, hortik aurrerakoa betelan batek estali zuelako. Mendizaleek Puelatik barrena Andatza mendira igotzeko erabiltzen dute bidearen zati handi bat.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 8. poligonoko 017 eta 010 lurzatiak.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 017 eta 010 lurzatiak.

25. URTEAGA – SAN ESTEBAN BIDEA

HASIERA: Txokoalde-Zubieta bidean (23. erref.), Urteaga baserrian.

BUKAERA: Igartzazabal bidea (19. erref.), Oa baserrietatik gertu.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Urteaga baserria

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
URTEAGA – 24 BIDEA	260 m.	3,0 m.	Legarra	Ona
24 BIDEA – 25.1 BIDE-ADARRA	580 m.	0,8 -1,5 m..	Lurra	Zikina
25.1 BIDE-ADARRA – 19 BIDEA	60 m.	2,5 m.	Legarra	Ona
+ 25.1 BIDE-ADARRA: AITZMURGIL	600 m.	1,5 - 2 m.	Lurra	Itxia

LUZERA: 1.500 m.

EGOERA: 24. bideraino pista zabala da, duela ez asko irekia eta egoera onean. Hortik San Estebanerako bidea, berriz, zikin samarra dago eta ez egoera onean. 25.1 bide-adarra landaretzaren ondorioz egoera txarrean dago, eta zati batzuetan pasatzerik ez dago.

ERABILERAK: Lursailetara sartzeko eta Urtegatik San Estebanera iristeko.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 8. poligonoko 65, 68, 10, 20, 94, 25, 27 lurzatiak.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 1, 68, 10, 26, 27 lurzatiak.

25.1 bide-adarra

- Eskuinean: 8. poligonoko 27, 37, 16 lurzatiak.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 27, 1, 16, 14 lurzatiak.

26. USURBILGO ERRIBERAKO BIDEA

HASIERA: Industrialdea bidea, Ingemarren.

BUKAERA: Industrialdean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZOR UA	EGOERA
INDUSTRI ALDEA – INDUSTRI ALD	905 m.	3,0 m.	Legarra	Ona
	320 m.	2,2 m.	Lurra	Ona
+ 26.1 ADARRA: KALEZAR - IRURUBIETA	90 m.	1,5 m.	Lurra	Ona

LUZERA: 1.315 m.

EGOERA: Bidea, egoera onean aurkitzen da.

ERABILERAK: erriberako lursailetara joateko eta pasealeku bezala erabiltzen da. Kalezar auzora sartzeko ere balio du.

OHARRAK: Bide honen trazaketa, Bizkarrako industrialde berria eraikitzearen ondorioz aldatua izan da.
Lehen, 26.1 bide-adarrak erreka gurutzatzen zuen eta Zubietako Irruubieta baserrira iristen zen.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 4. poligonoko 97, 96, 95, 94, 93, 92, 91, 90, 85 , 63 , 61, 60, 59, 58, 57, 56, 55, 54, 47, 46, 45, 44, 43, 42, 41, 40, 39, 296, 295, 292, 291, 38, 37, 31, 26, 25, 24, 23, 22, 21, 20, 19, 18, 17, 16, 15, 10 lurzatiak.
- Ezkerrean: 4. Eremu: Hiri lurra.

26.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 4. poligonoko 10 lurzatia.
- Ezkerrean: 4. poligonoko 15 lurzatia.

Z-01. SANTUENEA – LASARTE BIDEA

HASIERA: Usurbilgo mugan, Amidibea baserritik gertu.

BUKAERA: Lasarteko mugan, Hipodromoko zubian.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Amidi, Artzabaleta, Etxetxo, Etxeberri, Iturritxo, Lizarraga, Etxenagusia, Zubietako herrigunea, Altzu (hondakinak) eta Telleri.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
AMIDI – HIPODROMOKO ZUBIA	3.098 m.	3,5 - 5,4 m.	Asfaltoa	Ona
+ Z-01.1 ADARRA: AMIDIGOIA -	153 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
AMIDIERREKA	50 m.	--	Lurra	Galdua
+ Z-01.2 ADARRA: IRURUBIETA	140 m.	2,4 - 3,0 m.	Asfaltoa / Legarra	Ona
	60 m.	--	Lurra	Galdua
+ Z-01.3 ADARRA: BARRENETXE	234 m.	3,0 m.	Asfaltoa	Ona
+ Z-01.4 ADARRA: TXIKIERDI	920 m.	3,0 m.	Asfaltoa	Ona
+ Z-01.5 ADARRA: IURRITZA	100 m.	1,8 m.	Lurra	Ona
	310 m.	--	Lurra	Galdua
+ Z-01.6 ADARRA: TELLERI	200 m.	2 m.	Lurra	Zikina

LUZERA: 5.265 m.

EGOERA: Ona, Z-01.1 adarraren bukaera eta Z-01.5aren zati bat izan ezik. Lehenengo kasuan eraikin berriak eta bigarrenean zenbait baratza direla eta, galdu egin da bidea. Z-01.5etik Z-01 bidera igoerarik ez dute egin azken bidearen zabaltze berrian. Z-01.6 bide-adarretik pasa badaiteke ere, egur eta zaborrak bidea oztopatzen dute.

ERABILERAK: Lasarte eta Usurbilera joateko Zubieta auzoko bide nagusia da.
Bide-adarrak baserri eta lursailetara joateko erabiltzen dira nagusiki.

OHARRAK: Z-01.1 Bide-adarra jatorrizko bidea izan zen oraingo Z-01 bidea konpondu aurretik. Irurubietara doan Z-01.2 bide-adarrak, lehen erreka gurutzatzen zuen eta Kalezar auzoraino iristen zen. Z-01.3 bide-adarra Barrenetxe, Aliri eta Aundi baserrien *gorputz bidea* zen. Z-01.5 bide-adarra jatorrizko herri-bidea zen, trenbidearen gainetik egina dagoen Z-01 bidea konpondu aurretik. Z-01.6 aurreko herri-bide zaharraren jarraipena zen Artutxa baserrira eta izen bereko ibira zihoan.

Zatirik handiena Donostiako udalerrian egonik, Usurbili honako zatiak dagozkio:

- Z01eko 930 m. (Etxetxo baserritik-Lizarraga baserriraino).
- Z01.2 bide-adar osoa, 200m.
- Z01.3ko 40 m. (Barrenetxe baserriaren atariraino).
- Z01.4ko hasierako zatia izan ezik gainerako guztia, 820m.

MUGAKIDEAK: Bide honek Katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 14. poligonoko: 315, 143, 317, 44, 45, 38, 36, 37, 228, 471, 393, 108, 480, 29, 28 lurzatiak. 9. poligonoko 153, 11, 12, 53, 52, 66, 67, 68, 69, 70, 96, 97, 123, 98, 100, 99 lurzatiak eta 13. poligonoko 5, 4, 14, 148, 155, 161, 202, 151, 201, 87, 185, 184, 99, 186, 91, 90, 92 lurzatiak.
- Ezkerrean: 9. poligonoko 144, 145, 146, 147, 149, 148 lurzatiak. 14. poligonoko 39, 30, 32, 31 lurzatiak. 9. poligonoko 152, 3, 142, 187, 10, 54, 64, 65, 71, 120, 72, 89, 90, 93, 94, 95, 157, 101, 102 lurzatiak. 14. poligonoko 19, 18, 16, 15, 110, 33, 34, 203, 547, 204, 98, 94, 100 lurzatiak.

Z-01.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 14. poligonoko 315, 483 lurzatiak.
- Ezkerrean: 14. poligonoko 315 lurzatia.

Z-01.2 Bide-adarra

- Eskuinean: 9. poligonoko 10, 55, 188, 7, 57 lurzatiak.
- Ezkerrean: 9. poligonoko 187, 8, 189, 7, 57 lurzatiak.

Z-01.3 Bide-adarra

- Eskuinean: 14. poligonoko 18, 20 lurzatiak. 9. poligonoko 111, 106, 134 lurzatiak.
- Ezkerrean: 14. poligonoko 19, 21 lurzatiak. 9. poligonoko 105 lurzatia.

Z-01.4 Bide-adarra

- Eskuinean: 14. poligonoko 33, 35 lurzatiak. 9. poligonoko 127, 164, 160, 159 lurzatiak. 7. poligonoko 27, 23, 21 lurzatiak.
- Ezkerrean: 14. poligonoko 110, 109 lurzatiak. 9. poligonoko 106, 163, 162, 104 lurzatiak. 7. poligonoko 22 lurzatia.

Z-01.5 Bide-adarra

- Eskuinean: 14. poligonoko 203, 547, 204 lurzatiak.
- Ezkerrean: 14. poligonoko 203, 547, 207, 548, 205, 204 lurzatiak.

Z-02. PETRITZA BIDEA

HASIERA: Santuenea – Lasarte bidean (Z-01 erref.), Artzabaleta baserriaren parean.

BUKAERA: Santuenea – Lasarte bidean (Z-01 erref.), Zubietako herrigunean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Artzabaleta, Oianguren, Zuasti, Lertxundi, Petritza, Irigoien baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
ARTZABALETA – LERTXUNDI	755 m.	2,5 m.	Hornigoia	Ona
LERTXUNDI – ETXENAGUSIA	718 m.	2,7 m.	Hormigoia	Ona
+ Z-02.1 ADARRA: ETXETXO	253 m.	1,5 m.	Lurra	Ona
+ Z-02.2 ADARRA: BERRIDI	100 m.	5,7 m.	Asfaltoa	Ona
	410 m.	2,6 m.	Hormigoia	Ona

LUZERA: 2.236 m.

EGOERA: Ona.
Oianguren baserriaren inguruan eta Z-02.1 Etxetxora doan bide adarretan itxiturak daude eta bidetik pasatzea eragozten dute.

ERABILERAK: Baserri eta lursailetara sartzeko.

OHARRAK
Usurbili honako zatiak dagozkio:

- Z02ko 350 m. (Z02.1etik Lertxundi eta Petritza baserrien arteko errekastoraino).
- Z02.1 bide-adar osoa, 253m.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide.

- Eskuinean: 14. poligonoko 471, 393, 472, 402, 82 lurzatiak. 9. poligonoko 14, 46, 45, 44 lurzatiak. 14. poligonoko 422, 7, 6, 8, 12, 57, 156, 148 lurzatiak.
- Ezkerrean: 14. poligonoko 471, 393, 468, 29, 487 lurzatiak; 9. poligonoko 13, 47, 48, 49, 44 lurzatiak eta 14. poligonoko 120, 530, 119, 3, 5, 14 lurzatiak.

Z-02.1 Bide-adarra

- Eskuinean: 9 poligonoko 13, 11 lurzatiak.
- Ezkerretara14. poligonoko 487 lurzatia. 9, poligonoko 155, 154, 153 lurzatiak.

Z-02.2 Bide-adarra

- Eskuinean: 14. poligonoko 12, 17, 83, 481 lurzatiak.
- Ezkerrean: 14. poligonoko 148, 156, 157 lurzatiak. 9. poligonoko 165, 113 lurzatiak. 14. poligonoko 83, 484, 482 lurzatiak.

Z-03. ARAETA - JUANASORO BIDEA

HASIERA: Zubieta herrigunean, Araeta Jatetxean.

BUKAERA: Usurbilgo mugan, Juanasoron.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Araeta eta Berridi baserriak, zalditegia eta granja bat.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
ARAETA – BERRIDI	370 m.	2,5 m.	Hormigoia	Ona
BERRIDI – GRANJA	855 m.	2,7 m.	Legarra	Ona
GRANJA – USURBILGO MUGA	3.135 m.	1,8 – 2,2 m.	Lurra	Ona
	330 m.	0,8 – 1,5 m.	Lurra	Ona

LUZERA: 4.690 m.

EGOERA: Ona, nahiz eta azken zatia nagusiki bidezidor bihurturik egon.

ERABILERAK: Zenbait baserri, eraikuntza eta lursailetara sartzeko. Senderismoko hainbat Ibilbide luzekin bat dator.

OHARRAK: Done Jakue bidea eta GR 34 ibilbidearen arrasto zuri-gorriekin markatuta dago. Bide ondoan aztarna megalitikoak daude. Ia osorik Donostian egon arren, azkeneko 330 metroak Usurbilgo udalerrian daude.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide

- Eskuinean: 14. poligonoko 86 lurzatia. 9. poligonoko 113, 177 lurzatiak. 14. poligonoko 482, 481, 497, 430, 431, 195, 417, 360, 554, 553 lurzatiak. 9. poligonoko 36, 33, 28, 26, 25, 24, 165, 171, 172, 174, 176 lurzatiak. 14.

poligonoko 398, 534, 349, 336, 335, 333, 332, 309, 268, 310, 331, 294, 295, 223, 225, 303, 302, 280, 287, 288, 289, 290, 440 lurzatiak.

- Ezkerrean: 14. poligonoko 149, 555, 84, 226, 321, 320, 319, 181, 322, 540, 495, 433, 434, 360, 358, 553, 357, 356, 355, 354, 351, 350, 477, 384, 396, 397, 534, 349, 336, 335, 332, 309, 268, 310 , 297, 308, 306, 305, 280, 287, 286, 289, 291 lurzatiak.

Z-04. HIPODROMO BIDEA (ARRAPIDE-BUGATI)

HASIERA: Hipodromoko zubian.

BUKAERA: Itxiberrietako biribilgunean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Hipodromoa, Bugati.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
ZUBIA – BIRIBILGUNEA	1.350 m.	4,5 – 5,0 m.	Asfaltoa	Ona

LUZERA: 1.350 m.

EGOERA: Ona.

ERABILERAK: Hipodromo ingurura, etxe eta lursailetara sartzeko erabiltzen da, baita pasealeku bezala ere.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: Hiri-lurra.
- Ezkerrean: Hiri-lurra.

OHARRAK Donostiako udalerrian dago osorik.

Z-05. GOIKOETXEA BIDEA

HASIERA: Araeta – Juanasoro bidean (Z-03 erref.), Goikoetxea baserriaren hondakinak.

BUKAERA: Berridi bidean (Z-02.2 erref.), Lanbide Eskolaren atzean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Goikoetxea baserriaren hondarrak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
GOIKOETXEA – LANBIDE ESKOLA	180 m.	1,5 m.	Lurra	Erdi galdua.

LUZERA: 180 m.

EGOERA: Erdi galdua dago. Belardian galtzen da bidea, antzeman badaiteke ere nondik nora doan. Usurbilgo Lanbide eskolako alanbre-sareak bidea moztu du bukaerako zatian.

ERABILERAK: Goikoetxea baserrirako bidea zen. Gaur egun ez du erabilpenik.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 09 poligonoko 113 lurzatia.
- Ezkerrean: 09 poligonoko 113 lurzatia.

OHARRAK

- Usurbilgo udalerrian dago osorik.
- Eranskineko 34. dokumentuan,“Partición de los bienes de la comunidad de Zubieta”, honela ageri da: *”Confinan la casa y antepuertas por el Oriente y Mediodia con camino público y por el Poniente y Norte con sus pertenecidos”.*

Z-13. LERTXUNDI – OIANGUREN BIDEA

HASIERA: Petritza bidean (Z-02 erref.), Lertxundi baserritik gertu.

BUKAERA: Bugati – Karramiolatz bidean (Z-09 erref.), Oianguren izeneko parajean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
LERTXUNDI - LETABIDEI	1.100 m.	2,5 m.- 3 m.	Lurra	Ona.
LETABIDE - OIANGUREN	850 m.	1,5 m. – 2 m.	Lurra	Ona / Zikina.

LUZERA: 1.950 m.

EGOERA: Ona, bigarren zatia zikin samarra dago.

ERABILERAK: Lertxundi baserritik mendira joateko bidea zen. Gaur egun Donejakue bidea igarotzen da bertatik, Letabideraino.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

Usurbilen:

- Eskuinean: 09 poligonoko 45, 17, 167, 173, 174, 156 lurzatiak.
- Ezkerrean: 09 poligonoko 45, 18, 166, 167, 172, 174, 176 lurzatiak.

OHARRAK Usurbilgo udalerrian daude bidearen lehen 580 metroak.

Z-14. ARBITZA BIDEA

HASIERA: Petritza bidean (Z-02 erref.), Petritza baserritik ekialdera.

BUKAERA: Lertxundi-Oianguren bidean (Z-13 erref.), Bidegorrietan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Arbitza baserria eta borda bat.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
PRETRITZA - GAZTAINTXIKI	300 m.	2,5 m.- 3 m.	Hormigoia	Ona.
GAZTAINTXIKI - BIDEGORRIETA	250 m.	1,5 m.	Lurra	Ona.

LUZERA: 550 m.

EGOERA: Ona.

ERABILERAK: Arbitza eta Petritzatik mendira joateko bidea zen. Gaur egun borda betera iristeko bidea ere bada.

OHARRAK Usurbilgo udalerrian daude bidearen azken 300 metroak.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

Usurbilen:

- Eskuinean: 09 poligonoko 194, 43, 42, 21, 20 lurzatiak.
- Ezkerrean: 09 poligonoko 194, 193, 192, 31, 30, 29, 26, 25, 22 lurzatiak.

Zubietako gainerako herri-bideak Donostiako udalerrian daude osorik. Horien ezaugarri nagusiak honakoak dira:

Erref.	Bidearen izena	Hasiera	Bukaera	Luzera
Z-06	Goiaran	Z-01ean, Kateeta parajean	Goiaran baserrian	110 m.
Z-07	Bidegurutzeta	Z-04ean, Hipodromoaren ondoan	Bidegurutzetan	210 m.
Z-08	Berridi-Bidegurutzeta	Z-03an, Berridi baserria pasata	Bidegurutzetan	750 m.
Z-09	Bugati – Karramiolatz	Z-04ean, Berridi baserria pasata	Karramiolatzen, Zarrondoko errekan	2.630 m.
Z-10	Oriako Itxia	Z-04aren amaieran, Oria ibairen ondoan	Abalotz argindar zentralean	1.250 m.
Z-11	Bidegurutzeta – Letabide	Z-07aren eta Z-08aren amaieran, Bidegurutzetan	Z-13an Letabidetik hurbil	1.200 m.
Z-12	Letabide – Leteun	Z-03an, Letabidetik hurbil	Z-09an, Leteunenetik hurbil	950 m.
Z-15	Artzabaleta – Letabide	Z-02an, Artzabaleta baserriaren ondoan	Z-13an, Letabiden	980 m.
Z-16	Artzabaleta – Olaiko	Z-02an, Artzabaleta baserriaren ondoan	Z-03an, Olaikon	1.650 m
Z-17	Amidigoia – Olazabal	Z-01.1 bidearen amaieran, Amidierrekaren ondoan	Z-16an, Olazabalen	1.150 m.

B-01. ARRATZAIN BIDEA

HASIERA: Egioleta bidean (03. erref.), Arratzainberri baserriaren ondoan.

BUKAERA: Arratzain bidean (04. erref.), Arratzainzar baserriaren aurrean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
03. BIDEA - 04. BIDEA	220 m.	3,0 m.	Asfaltoa	Ona

LUZERA: 220 m.

EGOERA: Ona

ERABILERAK: 03. eta 04. bideen lotura moduan erabiltzen da.

OHARRAK: Arratzainzar eta Arratzainberri baserrien arteko zorbide moduan sortu zen bide zati hau. Lehengo herri-bidea (05 erref.) hegoaldetik doa. Gaur egun bide zati honek herri-bide zaharra ordezkatu du. Bere garaian lur trukaketa egin zela dioten arren, formalki ez zen jaso.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 1. poligonoko 67, 63 lurzatiak.
- Ezkerrean: 1. poligonoko 67, 64, 103 lurzatiak.

B-02. EGIOLETA BASERRIETAKO BIDEA

HASIERA: Egioleta bidean (03. erref.).

BUKAERA: Egioletaundi baserriaren atarian.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
03. BIDEA - EGIOLETA	210 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona

LUZERA: 210 m.

EGOERA: Ona

ERABILERAK: Egioleta baserrietara iristeko sarbide nagusia da gaur egun.

OHARRAK: 03.1 bidea izan da betidanik Egioleta baserrietara iristeko bidea. O3 bidea zabaldu zenean, berriz, baserrikoek bide berri erosoago bat zabaldu zuten, bide pribatua hasieran. Gaur egun porlaneztatuta dago eta herri-bidetzat hartu behar dugu. Herri-bide berriaren zatitxo bat Igeldon dago, errekaz bestaldera dagoena, hain zuzen.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzatihauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 1. poligonoko 9 lurzatia.
- Ezkerrean: Donostiako udalerria, 1. poligonoko 9 lurzatia.

B-03. URKAMENDI-IARBE BIDEA

HASIERA: Zumitzaga bidean (06. erref.), Urkamendi baserriaren ondoan.

BUKAERA: Iarbe baserritik gertu.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
06 BIDEA - 05 BIDEA	645 m.	2,5 m.	Asfaltoa	Ona

LUZERA: 645 m.

EGOERA: Ona

ERABILERAK: Bertako baserri eta lursailetara iristeko.

OHARRAK: 06 bidearen azken zatiari, Urkamenditik gorakoari, malda kentzeko zabaldu zen. Gaur egun asfaltatua dago eta herri-bidetzat hartu behar dugu.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 2. poligonoko 5, 3 lurzatiak.
- Ezkerrean: 2. poligonoko 5, 3 lurzatiak.

B-04. ARPIDEGIETA BIDEA

HASIERA: Aginaga – Orioko Benta bidean (08. erref.), Arpidegietan.

BUKAERA: Aginaga – Orioko Benta bidean (08. erref.), Etzabal baserriaren azpian.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
08 BIDEA - 08 BIDEA	480 m.	2,8 m.	Asfaltoa	Ona

LUZERA: 480 m.

EGOERA: Ona.

ERABILERAK: Goiko baserrietatik Aginagara jaisteko bide nagusia da.

OHARRAK: Hego-mendebaldean dagoen 08 bidearen ordezko bezala eraiki zen Arpidegieta inguruan bide berria, erosoagoa eta ez hain maldatsua. Lurjabe batzuk kontra egin arren, Udalak zabaldu egin zuen, ondoren porlana bota eta gaur egun asfaltuzko zoladura du.

Jose Mari Mayoz Pagola jaunak bide hau zabaltzeko utzitako lurrak aintzat hartzea eskatu du (utzitako metro kuadro kopurua eta xehetasunak honako alegazioan jasota daude: 1699 sarrera zenbakiarekin, 2011ko apirilaren 15a, Hirigintza).

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 2. poligonoko 27, 8, 202, 90, 91, 11 lurzatiak.
- Ezkerrean: 2. poligonoko 27, 8, 202, 90, 91, 11 lurzatiak.

B-05. SAIZAR BIDEA

HASIERA: Ibarrola bidean (02. Erref.).

BUKAERA: Harane futbol zelaian.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: 38 zenbakidun etxebizitza blokea.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
02. BIDEA – FUTBOL ZELAIA	130 m.	2,5 m.	Asfaltoa	Ona

LUZERA: 130 m.

EGOERA: Ona.

ERABILERAK: futbol zelaia, Saizar sagardotegia eta etxebizitza blokerako sarbidea da.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 6. poligonoko 29 lurzatia.
- Ezkerrean: 6. poligonoko 29 lurzatiak.

B-06. ALDAPETA

HASIERA: Txokoalde - Santuenea bidean (14. erref), Santuenean.

BUKAERA: Puelako bidean (19. erref.), San Esteban auzoko Oa baserriaren ondoan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
14. BIDEA – 19. BIDEA	300 m.	1,5 m.	Harlauzak	Ona

LUZERA: 300 m.

EGOERA: Ona, eskaierak eta heldulekuak ditu. Zolatuta dago.

ERABILERAK: Santueneatik San Estebanera oinez iristeko erabiltzen da.

OHARRAK: Jatorrian San Estebanera igotzeko laster bidea zen, jabetza pribatutik igotzen zena. Erabilerarekin publiko bilakatu eta Udaletxeak atondu egin zuen, eskailerak eta zolatua eman eta heldulekuak eta eserlekuak jarri.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 8. poligonoko 74, 27, 18 lurzatiak.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 24, 18 lurzatiak.

B-07. EIZAZPI-ORIAGAIN AGINAGAKO ERRIBERAKO BIDEA

HASIERA: Eizazpi etxe azpiko erriberako lurretan, 08.7 herri bidearen mugan.

BUKAERA: Oriagain etxe parean, N634 errepidetik, Txokoaldera, Altzonazko zubira, jeisten dagoen bidegurutzea.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
08.7. BIDEA – 14. BIDEA	590 m.	3 m.	Legarra	Ona

LUZERA: 590 m.

EGOERA: Ona.

ERABILERAK: Txokoaldetik Aginagako erriberetara iristeko erabiltzen da.

OHARRAK: Jabetza pribatuko bidea zen, eta 2019. urtean Usurbilgo Udalak desjabetzak gauzatu eta herri bidea egikaritu zuen.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 3. poligonoko 43, 42, 41,40, 38, 37, 36, 35, 34, 214, 33, 215, 216, 32, 25,24,23 lurzatiak.
- Ezkerrean: 3. poligonoko 31,30,29,28, 27 lurzatiak.

B-08. ELUTX BIDEA

HASIERA: Aginagako Soroa etxearen ekialdean.

BUKAERA: Aginagako , Elutx kalea 7 etxearen ipar ekialdean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
08.4. BIDEA – ELUTX KALEA	155 m.	3,5 m.	Hormigoia	Ona

LUZERA: 155 m.

EGOERA: Ona.

ERABILERAK: Aginagako kaxkoa eta Elutx kalearen arteko oinezko lotura.

OHARRAK: Usurbilgo Udalak 2023. urtean gauzatu du bide berri hau.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: Hirilurra.
- Ezkerrean: Hirilurra.

ZB-07. LERTXUNDI BIDEA

HASIERA: Santuenea – Lasarte bidean (Z-01 erref), Etxeberri baserriaren ondoan.

BUKAERA: Petritza bidean (Z-02 erref.), Lertxundi baserriaren ondoan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Lertxundi baserria.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
Z-01 BIDEA - Z-02 BIDEA	350 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona

LUZERA: 350 m.

EGOERA: Ona.

ERABILPENAK: Lertxundi baserrira gaur egungo sarbide nagusia da.

OHARRAK: Petritza bidetik zuen Lertxundi baserriak jatorrian bidea, eta askoz geroago zabaldutakoa da beste hau, jabego pribatutik barrena. Baina hasieran pribatuan izanda ere, herri-bidea da gaur egun, eta hormigoizko zoladura du.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastrokolursail hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 9. poligonoko 52, 48 lurzatiak.
- Ezkerrean: 9. poligonoko 66, 51, 50, 49 lurzatiak.

ZB-08 ZUASTI BIDEA

HASIERA: Santuenea – Lasarte bidean (Z-01 erref), Etxeberri baserritik 100 metrora.

BUKAERA: Petritza bidean (Z-02 erref.), Zuasti baserriaren aurrean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Zuasti baserria.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
Z-01 BIDEA – ZUASTI	240 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
ZUASTI – Z-02 BIDEA	60 m.	2,5 m.	Lurra	Ona

LUZERA: 300 m.

EGOERA: Ona

ERABILERAK: Zuasti baserrira sartzeko.

OHARRAK: Petritza bidetik zuen Zuasti baserriak jatorrian bidea, eta askoz geroago zabaldutakoa da beste hau, jabego pribatutik barrena. Baina hasieran pribatuan izanda ere, herri-bidea da gaur egun, eta hormigoizko zolatua du Z-01etik baserriraino.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 9. poligonoko 12, 13 lurzatiak.
- Ezkerrean: 9. poligonoko 53, 47 lurzatiak.

ZB-09 ETXEBERRI BIDEA

HASIERA: Santuenea – Lasarte bidean (Z-01 erref.), Etxeberri eta Etxeberritxiki baserrien artean.

BUKAERA: Zubietako argindar azpi-estazioan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Etxeberri eta Etxeberritxiki baserriak eta hainbat etxe berri.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
Z-01 BIDEA – AZPI-ESTAZIOA	270 m.	3,5 - 6 m.	Hormigoia	Ona

LUZERA: 270 m.

EGOERA: Ona

ERABILERAK: Iberdrolako aspiestaziora iristeko. Baita bidearen alboetan dauden etxeetara sarbide moduan.

OHARRAK: Usurbilgo herria hornitzen duen aspiestaziora iritsi ahal izateko udalak erosi dituen lurretatik igarotzen da herri-bidetzat hartu den bidea. Udalak hainbat zatitan bidea zabaldu du, aspi-estaziora tamaina handiko ibilgailuak iritsi ahal izateko.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 9. poligonoko 72, 73, 75, 182, 82 lurzatiak.
- Ezkerrean: 9. poligonoko 120, 202, 184, 182, 185, 82 lurzatiak.

ERABILERA PUBLIKOKO ZORTASUN-BIDEAK

Usurbil

A. ARITZETA BIDEA

B. URTETA BIDEA

C. AINTZIA BIDEA

D. ARBURU BIDEA

E. TELLEGINDEGI BIDEA

F. OLARRIONDO BIDEA

G. AGINAGAKO ERRIBERAKO BIDEA

H. ANDATZA-IRISASI

I. USURBILGO ERRIBERAKO SARBIDEA

J. PUELA BIDEA

K. BARRENETXE BIDEA

L. OLARRI BIDEA

A. ARITZETA BIDEA

HASIERA: Arpita bidean (01. erref.), Zelaiaundiko gainean.

BUKAERA: Ibarrola bidean (02. erref.), Bentazikin ondoan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
01. BIDEA – 02. BIDEA	1.280 m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona
BIDE-ADARRA	350 m.	3,0 m.	Lurra	Ona

LUZERA: 1.630 m.

EGOERA: Ona

ERABILERAK: 01. eta 02. bideen arteko lotura moduan erabiltzen da. Bide-adarra berriz, lursailetara sartzeko.

OHARRAK: Herri-bide zaharra ordezkatzeko zabaldu zuten 1970ko hamarkadan, A-8 autobidea eraiki zenean. Donostiako ingurabide berriarekin, berriz, trazatu berria eman zaio zati batzuetan.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: Autobidea.
- Ezkerrean: Autobidea eta 6. poligonoko 6, 173 lurzatiak.

Bide-adarra

- Eskuinean: Autobidea. 6. poligonoko 136 lurzatia.
- Ezkerrean: Autobidea eta 6. poligonoko 24 lurzatia.

B. URTETA BIDEA

HASIERA: Ibarrola bidean (02. erref.), Bentazikinen.

BUKAERA: 03.2 Bide-adarran, Urteta baserriaren ondoan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
01. BIDEA - 03.2. BIDE-ADARRA	92o m.	3,0 m.	Hormigoia	Ona

LUZERA: 920 m.

EGOERA: Ona

ERABILERAK: Baserri eta lursailetara sartzeko, baita 02 eta 03 bideen arteko lotura moduan ere.

OHARRAK: Herri-bide zaharra ordezkatzeko zabaldu zuten 1970ko hamarkadan, A-8 autobidea eraiki zenean.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 1. poligonoko 4, 5, 6, 7 lurzatiak.
- Ezkerrean: 1. poligonoko 4, 5, 6, 7 lurzatiak.

C. AINTZIA BIDEA

HASIERA: Arratzain bidean (04. erref.), Artikulan.

BUKAERA: Aginaga – Orioko Benta bidean (08. erref.), autopistapeko igarobidearen ondoan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Artikulako borda, txakurtegia, Aintziaberri eta Aintziazar baserriak.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
04. BIDEA – 08. BIDEA	1.200 m.	3 m.	Asfaltoa	Ona

LUZERA: 1.200 m.

EGOERA: Ona

ERABILERAK: Baserri eta lursailetara sartzeko, eta 04 eta 08 bideen arteko lotura moduan.

OHARRAK: A-8 autobidearen eraikuntzak hainbat baserriren berezko sarrera moztu zuen, 1970ko hamarkadan. Hori dela eta bide hau eraiki zuten.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 1. poligonoko 14, 15, 52, 91, 53, 16, 92, 54, 16, 25, 78, 94 , 20 , 32 lurzatiak.
- Ezkerrean: 1. poligonoko 14, 15, 52, 91, 53, 16, 92, 54, 16, 25, Autobidea, 94, 20, 32 lurzatiak.

D. ARBURU BIDEA

HASIERA: Aginaga – Orioko Benta bidean (08. erref.), Arburu baserriaren azpialdean.

BUKAERA: Tellegindegi bidean (E. erref.), baserritik hurbil.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
08. BIDEA – E BIDEA	860 m.	3 m.	Harria	Ona

LUZERA: 860 m.

EGOERA: Ona. Zolatu gabe dago oraindik.

ERABILERAK: 08 bidea eta E bidearen arteko lotura moduan eta hainbat lursailetara sartzeko.

OHARRAK: A-8 autobidea hiru errailetara zabaltzearekin batera ireki dute berriki, 2008an.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 1. poligonoko 32, 26, 35, 34, 36 lurzatiak.
- Ezkerrean: autobidea eta 2. poligonoko 204, 160, 161 lurzatiak.

E. TELLEGINDEGI BIDEA

HASIERA: Etzabal bidean (05. erref.), Gaztelu baserriaren eta Sariakolako presaren artean.

BUKAERA: Mapilerreka bidea (11. erref), Tellegindegi baserriaren ondoan..

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ez ere.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
05. BIDEA – 11. BIDEA	850 m.	2,8 m.	Asfaltoa	Ona

LUZERA: 850 m.

EGOERA: Ona

ERABILERAK: Tellegindegi eta Gorostidi baserrietara sarbidea. Berriki, Arburu bidearekin (D erref.) lotu dute.

OHARRAK: A-8 autobidea eraiki zenean ireki zuten, 1970ko hamarkadan, herri-bidea ordezkatzeko.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 2. poligonoko 168, 161 lurzatiak.
- Ezkerrean: 2. poligonoko 168, 226, 161 lurzatiak.

F. OLARRIONDO BIDEA

HASIERA: Usurbilgo herrigunean, Olarriondo kalean Agerreazpi baserriaren parean.

BUKAERA: Egioleta bidean (03. erref.), Puntapaxetik hurbil.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ez ere.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
OLARRIONDO KALEA – 03. BIDEA	150 m.	2,5 m.	Hormigoia	Ona

LUZERA: 150 m.

EGOERA: Ona.

ERABILERAK: Olarriondo kalea eta Puntapax lotzea.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: Hiri Antolamenduko S-5 (Olarriondo) eta S-6 (Agerreazpi) Sektoretako partzela urbanizagarriak (lehen 5. poligonoko 117 lurzatiak).
- Ezkerrean: Hiri Antolamenduko S-5 (Olarriondo) eta S-6 (Agerreazpi) Sektoretako partzela urbanizagarriak (lehen 5. poligonoko 149, 109 lurzatiak)

G. AGINAGAKO ERRIBERAKO BIDEA

HASIERA: N-634 errepidean, Lertxundi baserriaren ondoan.

BUKAERA: N-634 errepidean, Mapil baserriaren ondoan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
LERTXUNDI - MAPIL	750 m.	3 m.	Lurra/ harria	Ona
BIDE-ADARRA: LASTAOLA - EIZAAZPI	700 m.	3 m.	Lurra/ harria	Ona

LUZERA: 1.450 m.

EGOERA: Ona

ERABILERAK: Erriberako lursailetara sarbidea da.

OHARRAK: Udala eta erriberako lursailetako jabeen arteko akordioaren ondoren ireki zen bidea: erabilera publikoa izanda, jabetza pribatua izaten jarraituko zuen. Lertxundi-Mapil zatia zabaldu zen lehenik, Lastaolaraino bide-adarra geroago, 2008an; eta 2012an, Lastaolatik 08. herri-bideko 08.07 (*Enaluze*) adarraraino Eizaazpi baserriaren parean.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 3. poligonoko 106, 90, 92, 97, 98, 99, 100, 101, 102, 211, 107, 111 lurzatiak.
- Ezkerrean: 3. poligonoko 202, 84, 83, 92, 97, 98, 99, 100, 101, 102, 212, 211, 108, 107, 111 lurzatiak.

Bide-adarra: Lastaola-Eizaazpi.

- Eskuinean: 3. poligonoko 82, 81, 80, 36, 35, 205, 73, 72, 71, 66, 65, 60, 58. 55 lurzatiak.
- Ezkerrean: 3. poligonoko 83, 85, 79, 74, 70, 66, 65, 64 62, 63, 55 lurzatiak.

H. ANDATZA - IRISASI BIDEA

HASIERA: Illunbe eta Guardaenearen artean.

BUKAERA: Andatzari bira eman ondoren bide honetan bertan, Zazpìaritzeta izeneko parajean.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
GUARDAENEA - ZAZPIARITZETA	3.950 m.	3,0 m.	Lurra/Harria	Ona
ZAZPIARITZETA-ZIORTZA	1.750 m.	3,0 m.	Lurra/Harria	Ona
ZIORTZA- SAGATZU	3.050 m.	3,0 m.	Lurra/Harria	Ona
SAGATZU- ZAZPIARITZETA	2.400 m.	3,0 m.	Lurra/Harria	Ona

LUZERA: 11.150 m.

EGOERA: Ona, harrizko pista.

ERABILERAK: Andatza-Irisasiko mendiaren baso-ustiapenerako erabiltzen da.

OHARRAK: XX. mendearen erdialdera Estatua Andatza-Irisasiko jabe zenean eraikitako bidea da. Trazatu berrikoa oro har, herri-bide zahar batzuen gainean eraiki zen zati batzuetan. Andatzari bira ematen dion pista nagusia honetaz gain, bigarren mailako pista sare zabala dago.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 8. poligonoko 46, 44, 45 lurzatiak.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 46, 44, 45 lurzatiak.

I. USURBILGO ERRIBERAKO SARBIDEA

HASIERA: Usurbilgo herrigunea Santuenerekin lotzen duen zuzenaren erdialdea.

BUKAERA: Bidebanatzean

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Usurbilgo garbigunea, erriberako baratzeetarako eraikin osgarria.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
	160 m.	3,0 m.	Lurra/Harria	Ona

LUZERA: 160 m.

ERABILERAK: Erriberako partzeletara eta Usurbilgo Garbigune berrira iristeko erabiltzen da.

OHARRAK: Atalluko industrigunea eraikitzeko desjabetzean eragin eremutik kanpo geratu zen zortasun bide baten zatia da, eta, besteak beste, Garbigune berria kokatzen den Udaleko lursailera iristeko sarbidea. Jarraipena du bai 26 bide publikoan, bai jabeen aldeko zortasun bide pribatu batean.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 04 poligonoko 097, 096, 095, 094, 093 lurzatiak.
- Ezkerrean: Atallu industria poligonoa.

J. PUELA BIDEA

HASIERA: Urteagako bide zaharrean (24. erref.), Ermotegiaundi baserriaren eta Aitzondo iturriaren inguruan.

BUKAERA: Igartzazabalgo bidean (19. erref.), Puelazar baserriaren hondakinen ondoan.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
24. BIDEA – 25. BIDEA	190 m.	0,7-1 m.	Lurra	Ona / Zikina
25. BIDEA – 19 BIDEA	810 m.	1-1,7 m.	Lurra	Ona

LUZERA: 1.000 m.

EGOERA: 25. bidearekin bat egin arteko zatia, sasiak tarteko, oso estua da, nahiz eta maiztasun batekin garbitzen den eta pasa daitekeen. Hortik gora Puelazar baserriaren hondakinetaraino bidea garbia eta nabaria da. Hala eta guztiz ere, tarte batean, laburragoa den laster-bidea erabili ohi dute mendizale zenbaitek.

ERABILERAK: Hainbat lursailetara iristeko eta, batez ere, Andatza mendira igotzeko erabiltzen da.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 8. poligonoko 10, 69, 1 lurzatiak.
- Ezkerrean: 8. poligonoko 10, 69, 1 lurzatiak.

K. BARRENETXE BIDEA

HASIERA: Z01.4 bidean, Aliriko zubian.

BUKAERA: Z01.3 bidearen bukaeran, Barrenetxe baserriaren atarian.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Barrenetxebekoa.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
ALIRI- BARRENETXE	170 m.	3,0 m.	Asfaltoa	Ona

LUZERA: 170 m.

EGOERA: Ona.

ERABILERAK: Baserri eta lursailetara iristeko.

OHARRAK: Bide pribatu bezala sortu zen. Berriki, Añarbe Urak ur-hodiak pasa ditu bidearen zoru azpitik.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 9. poligonoko 104, 112, 113, 105 lurzatiak.
- Ezkerrean: 3. poligonoko 162, 108 lurzatiak.

L. OLARRI BIDEA

HASIERA: Egioleta bidean (03. erref.), Olarri baserriaren behekaldean.

BUKAERA: Olarri baserrian.

ZEHARKATZEN DITUEN ERAIKINAK: Bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA
03. HERRI-BIDEA – OLARRI	490 m.	2,6 m.	Hormigoia	Ona

LUZERA: 490 m.

EGOERA: Ona

ERABILERAK: Olarri baserriko joan-etorrirako erabiltzen da.

OHARRAK: 1989an Udal-plenoak harturiko erabakiaren arabera, Udalak aitortzen du Olarrira doan bidea txukundu eta zabaltzeko okupatu ziren lurrak erabilera lagapen baten bidez eskuratu zirela, inguru horretako urbanizazioa egiten ez den bitarteko balioarekin.

MUGAKIDEAK: Bide honek katastroko lurzati hauek ditu mugakide:

- Eskuinean: 5. poligonoko 41, 205, 220, 219 lurzatiak.
- Ezkerrean: 5. poligonoko 96, 95, 219 lurzatiak.